

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2024ko apirilak 12 · 1308 zenbakia



HERRIKO INGURUMENA BERRESKURATZEN LAGUNDU

2x189 €
MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE
MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez


www.multiópticas.com





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontozian, Inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eibarko Baso Biziak elkarteak Eibarko ingurumena berreskuratzeko lanean dihardu eta, horretarako, herritarren laguntza berebizikoa da. Horrela, bazkide kanpaina jarri du martxan, babesa behar dutelako esku artean dituzten proiektuak garatu ahal izateko.



ARGITARATZAILA
...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA
Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Yanire Sagredo
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Kongon ez dago umeen lanaren edo lan behartuaren ondorioz erauzi ez den kobaltorik; eta han ekoizten dira munduko kobaltoaren bi heren. Bateria bat duen edozer gauza inportatzeak debekatua behar luke. Enpresek mekanismoak dituzte esateko euren hornidura katea garbi dagoela, baina orduan nora doa kobalto hori ez badago Appleren, Teslaren, Volkswagenen eta BMWren katean? Meatzaritza probintzietara zoazenean, apokalipsi batean sartzea bezala da. Imaginatu zure hiritik landa eremura joan, eta ikustea zuhaitz guztiak moztu dituztela, belar guztia joana dela, eta dena zikinkeria eta zuloak direla: airea marroia da, begiek erre egiten dute, eta metal azidoen zaporea nabaritu dezakezu ahoan; umeak kutsatuta daude, eta errekek apar zuria dute ertzetan... Baina Kongoko presidente batek meatzeak nazionalizatu eta katearen lehen mailak arautzeko erabakia hartuko balu, akabatu egingo lukete.

SIDDHARTH KARA, ikertzailea

Gure baserriaren kanpoaldeko berdetasun hau ikusita... Begira zer galdu genuen Jose Manuelek eta biok mundua jan nahi izateagatik, berak boxeoarekin eta ni AEB-ra joanda, eta begira nola amaitu dugun.

CANDIDO IBAR, Urtainen anaia eta Pablo presoaren aita

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PA → Ume hizkeran laztana, musua. “Egin ba agur-agur amamari! eta bota paaaa!”

PA EGIN / PA EMON → Ume-hizkeran, musu eman. “Behin pa egin netsanetik, adiskide izan giñan”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 12
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ZAPATUA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 14
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ASTELEHENA 15
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
MARTITZENA 16
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
EGUAZTENA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 18
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
BARIXAKUA 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak


SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Natargas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Said El Boustati El Boustati. 49 urte. 2024-03-28.
- Rogelio Perez Breña. 86 urte. 2024-04-02.
- Javi Errekalde Gantxegi. 68 urte. 2024-04-03.
- Dolores Saenz Dominguez. 80 urte. 2024-04-03.
- Aitor Ibargutxi San Pedro. 80 urte. 2024-04-03.
- Blanca Urrea Aldaz. 94 urte. 2024-04-05.
- Angel Miguel Arriola Osoro. 82 urte. 2024-04-05.
- Juan Jose Barriga Rodriguez. 78 urte. 2024-04-05.
- Anton Ormaechea Solozabal. 73 urte. 2024-04-08.

Jaiotakoak

- Izar Varea Carballo. 2024-03-27.
- Kevin Valdes Hernandez. 2024-03-29.
- Yanis Mimiss El Kostali. 2024-04-05.



Kartillak kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan banatuko dira.

Aurten ere euskerak saria daka "erosketa ibilbidean"

Apirilaren 11tik 30era egingo den "erosketa-ibilbidea" kanpainak helburu bikoitza du: herritarrek Eibarko establezimenduetan erostera animatzea eta era berean erosketa horietan euskararen erabilteza sustatzea.

Kanpaina Eibarko Dendarien Elkarteak/Gipuzkoa Merkatariak antolatzen du, ...eta kitto! Euskara Elkartearekin, Eibar Merkataritzak Gune Irekiarekin eta Eibarko Udalarekin lankidetzan.

EROSKETA-IBILBIDEA kanpainak aurreko edizioetan izan duen arrakasta ikusita, aurtengoan ere euskararen erabilteari bultzadatzeko bat emango zaiola aurreikusten dute antolatzaileek. Izan ere, Eibarren bertan kontsumitzeko erraztasunak emateaz gain, bertako hizkuntza erabiltzeko aukera ematea bezeroei



kalitatea eskaintzea da. Kanpainan parte hartzea oso erraza da eta dinamika orokorra izazkoaren berbera da.

Horrela, kanpainan parte hartzen duen saltokiren batean bezeroak lehen erosketa egiten duenean, kanpainako sobrea jasoko du, barruan hamar laukiko kartillatxoa duena. Kartillatxoko laukiak betetzeko, bezeroak kanpainak irauten duen bitartean, 10 saltoki desberdinetan erosketak egin behar ditu.

Egindako erosketa guztien batura 200 euro baino gehiagokoa izan behar da. Saltoki bakoitzak lauki bat zigitatuko du eta bezeroari tiketa emango dio, gutun-azalean gorde beharko duena (ezinbestekoa da 10 erosketei dagozkien tiketak izatea).

Iaz bezala, erosketak egitean euskaraz erabiltzen dutenei (euskaraz agurtzea, euskaraz nahi dutena eskatzea) "Euskeraz Primeran!" pegatina jarriko zaie laukitxoan, aurten kolore berdekoa izango dena, eta gainean establezimenduaren zigitua.

Bezeroa, zigituekin kartilla bete ondoren, Eibarko Merkatarien Elkartearekin jarriko da harremanetan. Elkarrekin horrek kartilla berrikusi eta balioztatuko du, eta Oparitu Eibar txartela emango dio, 40 eurokoa. 10 zigituez gain, "Euskeraz Primeran!"-eko 10 pegatina baldin baditu, 50 eurokoa izango da Oparitu Eibar txartela. Esan bezala, Eibarko establezimenduetan erosteaz gain, salerosketetan euskara gehiago erabiltzea da kanpaina honen helburua. Bakoitzak ahal duen neurrian: lehen hitza euskaraz eginez, elkarriketa elebidunak erabiliz edota euskaraz jardunez.

Oparitu Eibar txartelak kanpainan parte hartzen duten establezimendu elkartuetako edozeinetan gatzatzeko dira, ekainaren 18a baino lehen. Opari-txartelak kartilla 10 zigituekin betetzen duten lehen 140 bezeroentzat izango dira.



1931ko apirilaren 14an, Bigarren Errepublika aldarrikatu ostean manifestazioa egin zen, eta egun horretan Eibarko herritar guztiak kalera irten ziren. EIBARKO UDALARTXIBOA

“II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren” hitzaldia Ego Ibarren YouTube kanalean

Bigarren Errepublikaren aldarrikapena azaltzeko Jesus Gutierrez historialariak Eibarko institutuan berriki emandako hitzaldia osorik ikus daiteke Interneten, Ego Ibarra batzordeak bere YouTube kanalean igo du eta. II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren izenburuari jarraituta, “Historian zehar Eibarrek bizi izan duen pasadizorik aipagarriena” azaldu zien ikerlariak gazteei, aldarrikapenaren arrazoiak emanez, Eibarrek garai hartan zuen egoera azalduz, eta herriaren ezaugarriak nabarmenenak adieraziz. Gutierrezen aburuz, ez da

kasualitatea Errepublika Eibarren aldarrikatzea, sasoi hartan (1931) herriak gizarte- eta klase-kontzientzia oso sustraitua zuelako, eta urte asko zeramatzalako beharginen eskubideen aldeko borrokan. Eibarko historialariak azaldu bezala, apirilaren 14an egindako aldarrikapen goiztiar hartatik arratsaldeko bostak arte (plazari Alfontso XIII.a erregearen izena kendu eta Errepublikaren plaza izena jarri arte), Eibarko herritar guztiak kalean egon ziren, Errepublikarekin batera beraien amets guztiak beteko zirela sinistuta.

Pagaegi kalea trafikoarentzat itxita egongo da zortzi astez, lanak direla eta

Pagaegi kalea ibilgailuentzat itxita dago astelehenaz geroztik, Ibargaineko bidegurutzean egin beharreko lanen ondorioz. Horiek egiten diharduen enpresak jakinarazi duenez, Muzategi, Pagaegi eta Ibargain

kaleen arteko ibilgailuen pasabideak itxita jarraituko du, inguru horretako lanak amaitu arte. Obrak zortzi bat astezko iraupena izango duela dago aurreikusita, bestelakorik ez bada.

Zamacola lantegi-etxea ezagutzera emateko ekimena antolatu du Museoak apirilerako

Apirilaren 18an Monumentu eta Lekuen Nazioarteko Eguna dela eta, Zamacola lantegi-etxea aurkeztuko da apirilean zehar, Eibarko Armagintzaren Museoaren YouTubeko kanalaren bidez. Horrela, hainbat bideotan bildu dituzten testigantza eta irudiei esker, eraikina-ren historiara gerturatzeko aukera izango da. Zamacola lantegi-etxeak Kultura Ondasun Kalifikatu izendapena dauka 2015etik, monumentu kategorian. Museotik azaldu dutenez, “1870ean eraikitako etxe hori Otaola etorbidean dago, errepidearen eta Ego ibaiaren artean. Beheko aldean, tailerrean, armagintzarako makineria propioa eta forja bat daude, ibaiaren indar hidraulikoa aprobetxatzen zutenak eta, goiko solairuan, familiaren etxebizitza”. Eraikina Felipe Zamakola (1860-1913) kanoigileak sortu zuen, XIX. mendearan amaieran, eta ondoren Pablo Zamakola semeak mantendu zuen lantegi-etxea. Zamakola e Hijos enpresa berak sortu zuen, Juan, Pablo, Silvestre, Francisco eta Cándido, bost seme-alabekin batera.





Dagoeneko 112 bizilagunek eman dute izena energia-komunitatean sartzeko

112 lagunen parte-hartzea berretsita, TEK Eibar Tokiko Energia Komunitatea prest dago herrian energia kontsumitzeko eta sortzeko modua azaltzeko, Udalak jakinarazi duenez. Egitasmo horren bitartez, panel fotovoltaikoak jarriko dira estalki publiko batzuetan, eta neurri horrek, autokontsumo energetikoa ez ezik, udalerrian hiri-berronerraztea sustatuko du. Helburua energia berriztagarrien sare bat sortzea

da, bat egiten duten bizilagunen onurarako. Diotenez, “jasangarritasuna bultzatzeaz gain, energia aurretzeko aukera ere ematen du, epe luzerako konpromisorik eta obra handirik egin beharrik gabe”. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo zuzenean izena emateko, www.tekeibar.eus helbidera jo daiteke edo, bestela, 900 859 695 telefono zenbakira deituta argituko dizkizute zalantzak.

Mankomunitateko langile batek jasandako eraso salatu du LAB sindikatuak

Lanean ari zela, Debarreneko Mankomunitateko langile batek herritar batengandik jasan zuen eraso fisikoa salatu dute LAB sindikatutik. Eraso orain dela bi aste gertatu zen eta, sindikatuko ordezkarien arabera, “langileek jasotako mehatxuak eta irainak ohikoak izan dira urteetan zehar. Bitartean, Debarreneko Mankomunitatea eta Badesa enpresa publikoek beste alde batera begiratu dute”. Horrela, langileak horrelakoen aurrean

babes barik lagatzea leporatu diete, eta “horrelako egoerak berriro gerta ez daitezten eta langileen laneko osasuna bermatzeko” protokolo bat sortzea eskatzen du sindikatuak, “baita bertako langileak babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzea ere”. Diotenez, “gure ustez, bada garaia arazo honi aurre egiteko. Arduradun politikoez, Debarreneko Mankomunitateko lehendakari den Ion Zubiaurrerengandik hasita, erabakiak har ditzatela”.

Gatazka armatuei buruzko hitzaldia emango du Itziar Mujikak Andretxean

Gerrek populazioaren garapenean duten eraginaz egingo du berba Itziar Mujika Chaok apirilaren 23an (martitzena), 18:30ean Andretxean emango duen hitzaldian, “baita generoan oinarritutako botere egiturek gerretan eta horien ondorioetan duten eraginaren inguruan, emakumeen garapenean duten eraginean sakonduz”. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia saileko irakaslea da bera, eta doktoratu ondoko iker-tzailea Hegoa Institutuan. Indarkeria bariko erresistentzian, gatazken generozko politiketan eta bake eraikuntzan ikuspuntu feminista eta generozkotik aditua ere bada.



Ipuruako anexoko zelaia erabiltzeko ordutegia

Irailan Eibar Kirol Elkartearen entrenamenduetara itzuli behar izan zela eta, Ipuruako anexoko zelaia asteburuetan bakarrik egongo da erabilgarri herritarrentzat. Hala, asteburu honetan honako ordutegian erabili ahal izango da: bihar, 18:00etatik 20:00etara; eta etzi, 12:00etatik 21:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943203240 telefono zenbakira deitu daiteke.



50 milioi eurotik gorako Aurrekontu Orokorra onartu du Udalbatzak

Aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuz gero, igo egin da aurten, iaz onartutakoa 47.238.430 eurokoa izan zen eta. Alkatetzaren memorian jaso dutenez, “onartutako aurrekontua azpiegitura, instalazio eta zerbitzu berriak sortzeko eta abian jartzeko izango da, baita gaur egun eibartarrek dagoeneko badituztenak mantentzeko ere, baina baita ekonomia- eta ekoizpen-ehunari laguntzeko ere, gure hirian dugun elkarte-sare ugariari eta askotarikoari lagunduz, eta gure hiri-ingurunea etengabe hobetzeko, Eibar hiri irisgarriagoa, erosoagoa eta bizigarriagoa bihurtuz”.

Aste honetan onartutako aurrekontuak 8 milioi euro aurreikusten ditu inbertsioetarako, eta Udalak burutuko dituenen artean honako hauek dira garrantzitsuenak: Torrekuako erabilera anitzeko eraiki-

na (erretiratuak, Gurutze Gorria, Goyeneche Fundazioa), Bustinduitarren eta Mutila kaleak berrurbanizatzea, Gabilondoko tailerrari lotutako parke eta erabilera anitzeko gunearen proiektua (Eibarko EH Bildurekin Ekialdea biziberritzeko aurretik daukaten akordioaren baitan), edo Mekolako lanen exekuzioarekin bat etorriko den Jardinetako igogailu berria. Halaber, 110.000 euro erabiliko dira ikastetxeak hobetzeko lanetan.

Gai-ordeneko puntu bakarra
Udalbatzarrerako gai-ordenean jasota zegoen puntu bakarra 2024rako Aurrekontu Orokorra onartzea izanik, bilkuran ez zen gorabehera handirik egon eta, alderdi politiko bakoitzeko bozeramaileek txandaka berba egin eta, jarraian, botazioa hasi zen. Emaiza aurrei-

2024. jardunaldirako 50.604.770 euroko Aurrekontu Orokorrari hasierako onespina eman zion Udalbatzak eguaztenean, goizean egindako ezohiko bilkuran. Prozedurari jarraituta, GAOn (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) argitara eman eta ondorengo lanegunetik hasita, hamabost laneguneko epea izango da erreklamazioak aurkezteko; eta, egongo ez balira, behin betiko onartutzat hartuko da urte honetako aurrekontua.

kusitakoa izan zen. Bi taldeen arteko akordioa sinatuta, PSE-EEK (8) eta Eibarko EAJ-PNVk (6) aldeko botoa eman zuten. Eta Eibarko EH-Bildu (6) Udal Taldeak eta Elkarrekin Podemos Eibarrek (1), berriz, kontrako botoa eman zuten. Bi taldeen arabera, Eibarrek bestelako aurrekontuak behar ditu eta, gainera, ez daude konforme sozialistek udaleko beste taldeekin akordioetara ailegatzeko daukaten moduarekin.

Alkatetzaren memoria eta gainerako dokumentazioa eskuragarri

2024ko Eibarko Udalaren Aurrekontuari dagokion dokumentazio guztia Udalaren webgunean kontsultatu daiteke dagoeneko. Bertan kontsultatu daitezke, besteak beste, Alkatetzaren txostena, Udal aurrekontua kapituloka, Diru-sarreraren aurrekontua, Gastuen aurrekontua eta Eranskina. Dirulaguntza izendunak ere azaltzen dira bertan. Horrekin batera, 2024rako Aurrekontu Orokorra onartzeko Udalbatzak egindako ezohiko bilkurari buruzko bideoa ere ikusgai dago, Udalaren webgunean.

Oin dala 93 urteko Eibar hartan izandakuaren harira

"Hiri guziz eredugarri" bihurtu eben mugimenduak emon ziran orduan. Espaiña osoko girua be antzerakua ei zan, errege bat kanporatzia ez da-eta eguneroko kontua. Baiña gurian ikusten da benetako gogua eguala halakorik gertatzeko, presaka batian jardun ebelako orduko eibartarrak. Nerea Areta Azpirik egindako, eta Ego Ibarrak kaleratutako, "Eibarko Efemeridiak" liburutik hartutako pasartiak dira ondorengiak. Domekan 1931ko apirillaren 14ko proklamaziño hura egin zala 93 urte beteko dira.



Domekia, 1931ko apirillaren 12xa. Herrixetako elekziñuak izan ziran. Eibarko zensuan 3.194 lagun eguazan botua botatzera jua-teko moduan. Lau distritotan bota eben botua. Republikanuak eta sozialistak bat egin ebenez, euretatik 18 lagun izendau ziran konzejal (10 sozialista eta 8 republikano)

eta nazionalista bat. Alkatia Alejandro Telleria izan zan, Timoteo Zubiateren lekuan. Bertan gabian, botuak kontaktzen, Diktaduriaren osteko lehelengo elekziñuetan, eibartar mordua kalian eguazan, urten ahala, datuak pizarra baten apuntatzen ebizan eta: gehixena, monarkixiaren aldeko konzejalik ez ebala urtengo ikusten zalako.

Goizeko seiretarako, **ixa herri osua** Unzagako Plazan eguan, zain



Irudia ikusitta, argi dago orduko jendiaren interesa piztu ebala proklamaziñuak.

Astelehena, 1931ko apirillaren 13a. Jendia biharrera gogorik barrik jua zan; holako gaba pasauta, komentarixuak eta zurrumurrak besterik ez eguan. Gabian lotara goizago erretirau ziran eibartarrak, nekia nagusi zalako. Espaiña osoko girua antzerakua zan, monarkixia behia jota egualako eta Republikia-ren aldekuak pozik.

Apirillaren 14an sartuta 1931ko apirillaren 14an, martitze-na, Eibar Espaiñaiko II. Republikia proklama u eban lehelengo herrixa



Herriko suhiltzailliak plazaren izenburua aldatzen udaletxeko fatxadatik.

izan zan. Gaberdixan, lehelengo arrain kamioiekin batera, Republikiaren proklamaziñuan barri zabaltzen juan zan; eta hori ez eze, Diputaziño barrixa formatzeko Donostiara lagun bi juan bihar zirala Eibartik be esaten eben. Holako barrixak herri osuan zabaldu ziran, eta egunsentian, goizeko seiretarako, ixa herri osua Unzagako Plazan eguan: elekziñuetan urtendako konzejal barrixak, danak konforme, Republika proklamatzia erabagi eben, eta baita egin be, bandera republikanua kanpora etara, eta Alfonso XIII.aren erretratua ganbara baten gordeta. Herrixan eren hoge guardia-zibil inguru, baiña nahixago izan eben euren lekuetan gelditzia millaka lagun aurre egittia baiño. Segiduan lagun bik urten eben Donostia aldera, euretao bat Enrique de Francisco zan.

Ordura arte aztoratuta ibilli arren be, zazpirak aldian trenak aillegau ahala, jendia aplakatzen hasi zan, eta nerbioso plantatzen,

zegaittik ez Donostian ez Bilbon eta ez bixen bittartian, iñun be ez eguan Republikiaren barririk. Goizeko zortziretan periodikuak hasi ziran, eta iñun ez ekarren Republikiaren barririk: eibartar asko biharrera be ez ziran juan, egon eziñarekin. Hori egon eziñori arratsaldera artekua izan zan, Barzelonan be Republika orduan egurdixan proklamau zala jakin izan zanera arte, Gobiernua aldatu egitten zala behingoz; eta geruago, Madrillek eta beste herri haundixak be beste hainbeste egin ebela. Donostiatik hori barrixori Eibarrera etorri zanian eskillara haundi batekin aiuntamentuko au-

Madrillen illuntzian proklamau zan II. Republika Espaiña osorako

rreko plakia aldatu eben, eta plazaren izen barrixa “Plaza de la República” ipiñi etsen: musika bandiak jo eban, eta jendiak “La Marsellesa”, “La Internacional” eta “Gernikako Arbola” kantatzen eban. Madrillen illuntzian proklamau zan II. Republika Espaiña osorako, Niceto Alcalá Zamora buru zala.

Eibarrek “Muy Ejemplar Ciudad” titulua eta “Primera Enseñanza”-ko Institutua jaso ebazan orduan Republikiarengandik: “herri eredugarri” tituluaren pergaminua Indalecio Prietok eta Miguel de Unamunok ekarri eben.

Republikako sasoi Eibarren eta eibartarren inguruan zelan bizi izan zan ikusteko, Alfa Kooperatibako hiru lagunek euki zittuen kargu haundixak dira eredu: Juan de los Toyos Gipuzkoako Diputaziño ggestoria izan zan, eta gerra ostian, Eusko Jaurlaritzara juan zan; Enrique de Francisco Almadégo Mine-tako Konsejoko direktoria izan zan (merkuriua etaratzen zan handik),

eta gero Republikako hirugarren legislaturan Kortietako diputaua izan zan; eta Toribio Etxebarria bera “Delegación del Gobierno en el Monopolio de Petróleos”-en egon zan, Campsa-ko Gobernoko delegaua izan zan eta.

Apirillaren 18ko plenua

1931ko apirillaren 18xan, Eibarko Aiuntamentuak, plenuan batzarra eginda, Euskal Autonomixiaren aldeko moziñua ontzat hartu eban: “Españiako beste herrixekin dituen loturak ahaztu barik, Euskal Herrixak, bereak dituen berezitasun historiko eta kulturalak direla-eta, bere buruaren jabe izateko zuen eskubidia aldarrikatu bihar dau” eben orduko ideia. Baiña hori ez zan azkenengo erabagixa izan, euren asmua baiño. PNV-ko konzejala testuko ideia nagusixarekin konforme eguan, baiña PNV-ren kontrako kritikia be igartzen ebalako ez eban firmau: hori aditzen emoten eban testua transkribiduta dago.

Dana dala, Eibarko aiuntamentuan Komisiño bat ipiñi eben autonomixiaren gorabeherak begiratzeko. Azkenian, sozialisten eta republikanuen kontu politikuen



Jendia kanpotik etozen berrixen zain pasau zeban eguna.

gaittik edo dana-dalakuagaittik, Eibarko aiuntamentu republikanua 1931ko junixuaren 14an Estellako Estatuaren kontra jarri zan.

Junixoko elektiño jeneralak

1931ko junixuaren 28xan, elektiño jeneralak izan ziran. Ezkerrak-gorrixak alde haundixarekin irabazi eben, Gipuzkua osuan ez leintxe: “Conjunción Republicano-Socialista-ANV”-ko kandidatuak botuen

%78,7xa etara eben; eskumakuak “Candidatura Vasca Defensora del Estatuto” izenagaz juan ziran, PNV partidua tartian zala, eta botuen %20,5a etara eben; eta komunistak (PCE) botuen %0,6xa.

Dana dala, ez zan dana bake-bakian izan: Eibarko sozialista batzuk Bergarara juan ziran botaziño egunian autobusian. Goizetik demandan ibilli ziran sozialistok eta Bergarako tradizionalista eta nazionalista batzuk; baiña arratsaldian asko be gauza grabiaguak izan ziran, zegaittik eze tiroka amaittu eben Aiuntamentu aurreko plazan, eta hildako bat be egon zan, Bergarako Miguel Aranburu karlistia. Guardia Zibillak Miguel Retenaga Garate -plaentxiarra izatez, baiña Eibarren bizi zan- harrapau eben armia eroiialako ezkutauta. Illunabarrian eibartarrok Bergaratik alde egin eben Guardia Zibillaren eskoltxiarekin, “*mientras los excitados bergareses intentaban asaltar el Casino Republicano y en círculos socialistas de Eibar se proponía acudir a Bergara para ayudar a sus camaradas*”.



Proklamaziñuaren aktia Eibarko Artxibuan dago gordeta.

...eta kitto!-ren bazkide izateak saria dauka

Bazkideek euskara elkarteari eskanitako babesa eskertu eta saritu nahi du ...eta kitto!-k, eta horretarako bazkideentzat hainbat zozketa jarri ditu abian. Aurrenekoa joan den barixakuan egin zen eta, argazkian ikusten duzuen bezala, Joseba Barrutia izan zen irabazlea. Eibar FT eta Alcorconen arteko partidua ikusteko 2 sarrera eskuratu ditu. Zorionak familia! Zozketetan parte hartzeko ez da izenik eman behar, bazkide diren guztiak sartuko dira-eta.



Egin zaitez *bazkide!*

zarelakogara

Apirilak
5



Eibar FTren partidua ikusteko 2 sarrera

Apirilak
19



Bazkaria Belaustegi jatetxean

Maiatzak
3



Fruta-otar ederra, El Cantón de la Avenidaren eskutik

Maiatzak
17



Roomba aspiradora

Maiatzak
31



Bazkaria Txurruka jatetxean

Ekainak
7



Opari-bonua Hotel Talasoterapia Zelaian

Jarri zure alea herriko ingurumenean

BIDEOA



Eibarko Baso Biziak elkarteak lau urte inguru daramatza bertako basoak berreskuratzeko lan egiten. Lorpen handiak izan ditu denbora labur horretan eta bere ekintzek hedapena izan dute gizartean. Orain, herritarren laguntza eskuratzeko bazkide kanpaina jarri du martxan, gure basoak berreskuratzera gure esku dagoelako.

Eibarko Baso Biziak elkarteak kideak boluntarioak dira, herri-rik sortu den mugimendua da. “Askotan pentsatzen dut berekioiak garelako egiten dugula hau. Kontraesana dirudi, baina ez. Denbora eskaintzen diogu, baita dirua ere, baina asko jasotzen dugu ordainetan”, aitortu digu Amagoia Gomez taldeko kideak. “Domekan, adibidez, zuhaitz landaketa egin genuen eta ze pozik heltzen zaren etxera hori egin eta gero! Hemendik joaten garenean ere, etorkizunerako zerbait lagatzen duzula sentitzen duzu”.

Elkartearen helburua Eibarko eta inguruko lurretan dauden bertako basoak iraunaraztea eta berreskuratzera, eta ekosistema horiei lotzen zaien bioaniztasuna mantentzea da. Horretarako, bertako basoa sustatuz, bertako landare eta animaliei babeslekua eskainiz eta errekek osasuntsu mantenduz. Azken neurrian, guztion bizi kalitatea hobetzeko eta Eibar bizigarriago bat eraikitzeko.



Helburu horiek lortzeko bidean, hainbat ekintza egiten dituzte. Batetik, basoak berreskuratu. Eibarko jabe pribatuei lursailak erosten dizkiete etorkizunean herri lur bilakatu daitezzen, lurren jabeen eta Lurgai Fundazioaren arteko zaintza-akordioak errazten dituzte bertako basoak berreskuratzen, eta lur horietan, beharrezkoa bada, bertako espezieetako zuhaitzak landatzen eta zaintzen dituzte doan, lur sailak bertako baso bilakatu artean.

Horren harira, Haritzbakarragan 10 hektarea erosi eta kudeatzen dituzte, Unben 11 hektarea zaintzen dituzte, eta Santutxun eta Igartuan 14 hektarea zaintzen dituzte Soraluzeko Baso Biziak elkartearekin eta Lurgaiarekin batera. “Eibarko eremuan dauden lurak kudeatzen ditugu”, zehaztu digu Mikel Jauregi elkarteak kideak. Gainera, aipatzen da Eibarko Udalak 25 hektarea erosi dituela Pagarikortan. “Horrek erakusten du proiektua erreal dela, ez dela zerbait abstraktua, urruti dagoena edo utopikoa. Proiektua egingarria dela erakusten ari gara”.

Naturarekiko maitasuna zabaltzen Elkartek egiten duen beste ekintza bat dibulgazioa da eta, horretarako, naturaren kontserbazioa herri osora zabaltzeko ekintzak antolatzen dituzte: irteera gidatuak, garbiketak, landaketak, eskolekin elkarlana, eta abar. “Naturarekiko maitasuna zabaltzen ari gara eta polita da”, diosku Gomezek.

Azken landaketan, joan den domekan, 300 zuhaitz landatu zituzten, urte hauetan guztira 2.500 zuhaitzetik gora landatu dituzte-



Aurreko domekan landaketa egin zuten Eibarko Baso Biziak elkarteak. YANIRE SAGREDO

larik. “Ez dauden edo lurak sasoi batean izan zituen zuhaitzak landatu ditugu”, azaldu digu Jauregik. Hurrengo landaketa udazken inguruan egingo dute, baina tartean zenbait ekintza antolatu dituzte Eibarko Baso Biziak elkarteak. Horrela, hegaztien behaketa egingo dute eta kabiak jarriko dituzte Asier Sarasuarekin, narrastien behaketa egingo da Ander Izagirrerekin ekainean, erreka garbiketa egingo da uztailan, landare inbaditzaileen inguruko ekintza egingo da irailean eta

ezkur bilketa urrian. Ekintza guzti horietan gazteen parte-hartzea sustatu nahian dabil Eibarko Baso Biziak elkartea. “Irakaslea naiz, eta nerabeak eta haurrak naturarekiko atxikimendua galtzen ari direla konturatu naiz. Teknologiarri lotuta gaude gaur egun”, diosku Gomezek. “Eibarren zulo batean bizi gara, baina mendiz inguratuta, eta gure sustraiak hor daude. Naturarekiko maitasunaren eta garapenaren arteko oreka lortzea da gure helburuetako bat”.



Amagoia Gomez eta Mikel Jauregi Eibarko Baso Biziak elkarteak.



Bazkide kanpaina martxan

Gazteak bakarrik ez, eibartar guztiak erakarri nahi dituzte proiektura martxan jarri berri duten bazkide kanpainarekin. Gaur egun, 142 lagunek osatzen dute Eibarko Baso Biziak elkarteak eta herritar gehiagoren laguntza berebizikoa da herriko ingurumen naturala berreskuratze-ko lan horretan.

Bazkide kanpaina hiru zatitan banatu dute, herritarrengana iristez gain, merkatarieganara eta lantegietara heltzeko asmoz. Herritarrei dagokienez, urtean 60 euro edo bakoitzak ahal duena ematea proposatzen dute. Hau da, “gure proiektua babesteko bazkide egin edo lur sailak babestea, 10 euro 20 metro karratu bakoitzeko”, diote elkartetik. Negozioei dagokienez, hiru ekarpen-mota proposatzen dituzte: ezkur agiria (100 eta 150 euro artean), zuhaitz agiria (200-300 euro) eta baso agiria (500 euro). Eta lantegiei dagokienez, proiektua ahal duten neurrian babestea proposatzen diete. “Zuhaitz

autoktonoak landatzea da CO2-a xurgatzeko modu eraginkorrena”, elkartearen berbetan.

Ekarpen horiekin herriko ingurumena berreskuratzen lagunduko zaie Eibarko Baso Biziak taldekoei, eta bide horretan lur sailak bereganatuko edo kustodian hartuko dituzte (“eibartarrok lur gutxi ditugu gure esku eta horiek erostea da helburua, gure ondare bihurtzeko”, diosku Gomezek), baso horietako biodibertsitateari utsiko diete, landare eta animaliei babeslekua eskainiko diete, errekek osasuntsu mantentzeko lanean ibiliko dira, eta jarduera didaktikoak antolatuko dituzte. “Eibarrek potentzial handia du, mendiz inguratuta gaude, pagadiak eta hariztiak egotea ez da utopia bat (errealitate bihurtzen ari den ametsa da), eta etorkizunean gure erreketan bainatzea posible ikusten dugu”, diote elkartekoek.

Babeslea izan nahi izanez gero, eibarkobasobiziak@gmail.com helbidera idatzi edo [sobiziak.eus webgunearen bitartez formularioa bete daiteke. Bertan, gainera, proiektuaren inguruko informazio gehiago jasotzeko aukera egongo da eta datozen egunotan triptikoak banatuko dituzte informazio osagarriarekin.](http://www.eibarkoba-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Bazkide egin eta buru-belarri laguntzea nahi izanez gero, taldeak esker onez jasoko du laguntza (hamar kide inguru astean behin elkartzen dira bilerak egiteko); eta bazkide egin nahi ez, baina boluntarioa izan nahi duenak ere horretarako aukera izango du, banaketa-zerrendan izena eman behar izango delarik. “Hau ez da greenwashinga, hau benetako zerbait da”, azpimarratzen dute elkartekoek, “gure ingurumena maite dugulako egiten dugu hau”.

Hori guztiaz gain, Eibarko Baso Biziak-i eskaintako babesak dotore erakusteko gogoz dagoenak elkartearen produktuak erosi ditzake <https://www.redbubble.com/people/EBB-Denda/shop> web orriaren bitartez.

LAN ESKAINTZA

Kultur aniztasun eta elkarbizitzarako teknikaria behar da

ESKATUKO ZAIO

- Hezkuntzarekin eta gizartearekin lotura duten ikasketak (irakaskuntza, gizarte-hezkuntza...)
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi erdiko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta errealitate soziolinguistikoa ezagutzea
- Euskaingintzan edo gizarte mugimenduan eskarmentua izatea
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna izatea
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus



LAN ESKAINTZA

Publizista behar da

ESKATUKO ZAIO

- Publizitate, marketin edo komunikazio ikasketak izatea
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz
- Lantaldean aritzeko gaitasuna
- Iniziatiba eta enpatia

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi osoko kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria
- Langiro atsegina

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta ingurua ondo ezagutzea
- Publizista lanetan esperientzia
- Sare sozialak menperatzea
- Sormenerako gaitasuna
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus



Minbizia prebenitzeko ibilbide osasungarriak bueltan dira

Munduko Osasun Erakundeak astean 150 minutuz jarduera fisikoa egitea gomendatzen du. Beraz, jarduera hori sustatzeko asmoz, Minbiziaren Aurka Gipuzkoan (AECC) elkarteak orain dela zenbait urte martxan jarri zuen ibilbide osasungarriak egitasmoa berreskuratu du hiruhileko honetarako, aste honetatik hasita.

Martitzenean egin zuen hiruhileko honetako lehen ibilbide osasungarria Eibarko taldeak. Denboraldi batez geldirik egon ondoren, jarduera hau martxan da berriz ere. “Hiru edo lau urte daramatxagu Eibarren ibilaldi osasungarriak eskaintzen. Hasieran jende gutxik eman zuen izena, pandemiaren sasoia zelako, baina askok horren beharra zegoela ikusi zuten, sozializatzeko eta mugitzeko aukera ona eskaintzen duelako, eta harrezkero oso harrera ona eduki duen ekintza izan da”, esan digu Laura Mongelos Minbiziaren Aurka Gipuzkoa elkarteko psikologoak.

Ibilaldi osasungarrien denboraldi berria uztaila inguruan amaituko da eta gero, gauzak ondo, udako oporren ondoren berriz itzuliko da, irailean, beste hiru hilabetez. Horrela, taldeek jarraikortasuna edukitzea bilatu nahi dute, beti

ere jende berria jasotzeko prest dauden arren.

Ibilbide bat astero

Eibarko taldean 12 lagun inguru daude gaur egun. “Batzuk berriak dira”, zehaztu digu Mongelosek. Beste batzuek, ordea, aurretik ere hartu dute parte, ekimenak izan duen harrera onaren seinale. Psikologoak asko baloratzen du jarduera taldean egin izatea. Izan ere, bere iritziz, “taldeak bultzada eman diezaieke kirola egiten ez duten edo jarduera fisikoa egiteari utzi dioten pertsonak badira”.

Ibilaldi osasungarriak astero egiten dira, astean behin, martitzenetan hain zuzen ere. Taldeko kideak AECC-k Ardantza kaleko 11. zenbakian duen egoitzan gelditzen dira goizeko 10:00etan eta, handik abiatuta, 6 kilometro inguruko ibilbidea egiten dute. Ibilaldiaren iraupena ordu eta erdi ingurukoa

Izena emateko





Gaur egun 12 lagun inguruk hartzen dute parte ibilbide osasungarrietan.

izaten da, baina hori parte-hartzaileen eta aukeratutako ibilbidearen araberakoa izaten da. “Egiten duen eguraldiaren arabera edo parte-hartzaileen gogoen arabera aukeratzen da egun bakoitzean egingo den ibilbidea. Taula batean hainbat ibilbide ezberdin ditugu zehaztuta, aukeratzeko beta emanez. Horrela, esan bezala, eguraldiaren arabera edo ibilbidearen zailtasunaren arabera (Eibar nahiko aldapatsua delako), erabiltzaileek aukeratzen dute zein egin”, zehaztu digu psikologoak.

Erritmoari dagokionez, bestalde, talde osoak elkarrekin hasten du ibilaldia, baina batzuek bizkorrago joatea nahiago izaten dute eta taldetxoak sortu daitezke. Dena dela, hori guztia kudeatzeaz elkarteko boluntario bat arduratzen da, eta bere esku dago jendeari harrera ematea, euren nahiak entzutea eta ibilaldietan gerta daitezkeen gora-

Astero, martitzenetan, talde bat elkartzen da Ardantzan 6 kilometro inguruko ibilbide bat egiteko

Bizitza sedentarioa minbizia sortzeko arrisku-faktoreetako bat da, eta hori ekidin nahi da jarduera honen bitartez

beherak eta zalantzak argitzea edo konpontzea.

Bizitza sedentarioa ekidin

Mongelosek esan digunez, “sedentarisismoa minbizia sortzeko arrisku-faktoreetako bat da”, eta hori prebenitzeko jarri dute martxan ibilaldi osasungarrien egitasmo hau. “Bizitza aktiboa sustatzea, konpainia sortzea eta ingurunea ezagutzea dira jardueraren helburu nagusiak”, AECC-ren berbetan.

18 urtetik gorako edonork eman dezake izena jarduera horretan, nahiz eta Mongelosek onartzen duen gaur egun taldean ez dagoela jende gazterik. “Minbiziaren prebentzioan, zenbat eta lehenago hasi hobeto”, bere berbetan. Beraz, gazteei ateak zabaltzen dizkiete ibilaldi osasungarrietan parte hartzeko.

Ibilaldi osasungarrietan izena eman ondoren, parte-hartzaileei elkarriketa egiten zaie. “Horrela,

18 urtetik gorako edozein pertsonak eman dezake izena ibilbide osasungarrietan parte hartzeko



bitzita sedentarioa duten edo jarduera fisikoa egiten duten jakin dezakegu, besteak beste”, azaldu digu Mongelosek. “Jardueraren hasieran eta amaieran egiten dugu balorazio hori eta, horrela, pertsona horri jarduerak nola eragin dion jakin dezakegu”.

Izena ematen duen pertsonak minbizia badu, ostera, kirol-tekni-kariekin jarriko da harremanetan eta kasu horietan beste bide bat har-tzen da, egoera ezberdina delako.

Izena emateko

Ibilaldi osasungarrien ekimena doakoa da, plaza mugatuak ditu eta jarduera osasungarri horretan hasteko interesa duten guztientzat dago zabalik. “Edozein momentutan eman daiteke izena”, esan digu Mongelosek. Horrela, edonorentzat laga ditu ateak zabalik.



Bitzita sedentarioa ekidin nahi da ibilaldi osasungarrien bitartez.

Bitzita aktiboa sustatzea, konpainia sortzea eta ingurunea ezagutzea dira jardueraren helburu nagusiak

Interesa dutenek alde zurririk izena eman beharko dute Debabarreneko elkartearen telefonoan –943 20 24 94 edo gipuzkoa@aecc.es helbidera mezu bat bidalita. Bestalde, <https://www.contraelcancer.es/eu/talleres/ibilaldi-osasungarriak-eibar-1> webgunean ere izena emateko botoia aurkitu daiteke eta formula-ria bete besterik ez da egin behar.

20.557 herritarrek izango dute botoa emateko aukera

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira apirilaren 21ean. 2023ko abenduaren 1ean Egoiliarren Hautesle-errolan Euskadiko udalerrri batean inskribatutako guztiek izango dute botoa emateko aukera. Eibarren, 20.557 lagunek.



Egun horretan botoa ematera joateko hauteslekuak goizeko 09:00etatik iluntzeko 20:00etara zabalduko dituzte. Eibarren, azken hauteskundeetan bezala, zazpi hautesleku egongo dira: Udaletxea, Arrateko Andra Mari ikastetxea, Torrekua anbulatorio zaharra-Gurutze Gorria, Amañako dorreak, Errebal Plazia, E.P.A. eta Urkizu ikastetxea. Eta, horietan banatuta, 23 mahai guztira. Botoa emateko, etxera bidalitako hautesle-erroldako txar-telean agertzen diren hauteslekura eta mahaira joan behar da. Hauteslekuaren barruan ere zerrendak egoten dira, bakoitzari zein mahai dagokion kontsultatzeko.



Botoa, berriz, etxetik prestatuta eraman daiteke, edo hauteslekuan bertan aukeratu eta bozketako gutun-azalean sartu daiteke, jarraian mahaian bozkatzeko. Eta gogoratu hauteskunde-mahaiko mahaibu-

ruari zure nortasuna egiaztatzen duen jatorrizko dokumentua, NAN, pasaporte edo gidabaimena erakutsi beharko diozula, bozketako gutun-azala hauteskontzian sartu ahal izateko.



20 urte baino gehiago zurekin.
Profesional talde handi bat zure irribarra zaintzen.

bista eder
clinica dental - hartz klinika

Deitu 943 70 00 82
bista eder, 19
20600 eibar
www.bistaeder.es



Errebal Plazia hautesleku bihurtu da honezkero, Coliseoaren ordez.

Eusko Legebiltzarrerako lehen hauteskundeetan, 1980an, hautesbarruti bakoitzean 20 legebiltzarkide aukeratu behar ziren, hau da, Euskadin guztira 60. Hurrengo hauteskunde guztietan, aldiz, kopurua 25ekoa izan da, aldatu gabe, hau da, 75 guztira. 1980. hartako hauteskundeen ondoriozko legebiltzarrean, 60 kideen artean bakarrik lau ziren emakumeak. Orain dela lau urteko hauteskundeetan, ordea, 75 kideetatik 36 izan ziren emakumeak.

2020an eman ez zuten 75.634 gaztek emango dute botoa oraingoan

Parte-hartze handiena izan zuten Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2001ekoak izan ziren: %78,97. 2020koak, berriz, izan ziren partaidetza-ehuneko txikienekoak, %50,78. Baina kontuan izan behar da 2020ko hauteskundeak pandemia egoeran egin zirela, eta uztailako asteburu batean. Bestalde, apirilaren 21eko hauteskundeetan, 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan botoa eman ez zuten 75.634 gaztek -orduan 18 urte beteak ez zituztelako- emango dute botoa oraingoan.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan lurralde historiko 3 hauteskunde-batzorde daude (lurralde bakoitzeko bat) eta eskualdeko 10 hauteskunde-batzorde (Amurrio, Gasteiz, Balmaseda, Bilbo, Gernika-Lumo, Durango, Azpeitia, Bergara, Donostia eta Tolosa). Atzerritarrek ezin dute euskal hauteskunde autonomikoetan

Parte-hartze handiena izan zuten Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2001ekoak izan ziren: %78,97

bozkatu. Europako hauteskundeetan, Europar Batasuneko herritarrek bozka dezakete. Udal hauteskundeetan, Europako herritarrek bozkatu dezakete, bai eta ildo horretan tratatuta dauden beste 13 herrialdeetako ere. Azkenik, bozketa-egunean hauteskunde-mahai batean titular edo ordeko eginkizunak betetzera joaten ez denari, delitu gisa, 3 hilabetetik urtebete arteko espetxealdi-zigorra edo isun ekonomikoa ezarri ahal zaio. Horrelako hauteskunde egun batek 35.000 lagunetik gorako parte-hartzea eskatzen du.

Oraingoan ez bada horrela izango ere, Euskadiko eta Galiziako hauteskundeak data berean izan dira 2009, 2012, 2016 eta 2020. urteetan; gainera, bi legebiltzarrek kide kopuru bera dute: 75. Hala ere, alde handiak daude beste arlo batzuetan bi erkidegoen artean. Galiziako hauteskunde-muga %5etik gorakoa



EMAN CONSULTING, S.L.

J. Etxeberria, 5 - solairuartea Tf: 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 emansl@emansl.es

• **AHOLKULARITZA**

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa

• **ASEGURU PRIBATUAK**



da, eta Euskadikoa %3tik gorakoa. Gainera, bateraezina da Galizian alkate eta legebiltzarkide izatea, eta hori ez da gertatzen Euskadin.

2020ko hauteskundeetan, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak hauteskundeetarako dei egin zuen hasiera batean 2020ko apirilaren 5ean. COVID-19 pandemia eta Espainiako Gobernuak ezarritako alarma-egoeraren eta berrogeialdi nazionalaren deklarazioa zirela eta, lehendakariak akordioa egin zuen Eusko Legebiltzarreko talde politiko guztiekin, hauteskundeak 2020ko uztailearen 12ra arte atzertzeko. Orduko hartan EAJ-PNVk 31 eserleku lortu zituen, EH Bilduk 21, PSE-EEk 10, Elkarrekin Podemos eta Ezker Anitzak 6 (4 eta 2), PP-k 5 eta talde mistoan izan diren Ciudadanos-ek eta Vox-ek bana.

Hiru sasoiko lehendakariak

Jose Antonio Agirre Región Autónoma del País Vasco izan zenaren lehen lehendakaria izan zen, 1937an Gerra Zibila galdu ostean, Francisco Francok autonomia desegin zuen arte. Franco hil ostean Eusko Jaurlaritzak izan dituen bost lehendakarietatik, lau EAJ

Arabar baten botoak bizkaitar batenak baino 3,6 aldiz gehiago balio du

alderdikoak izan dira, eta bestea PSE-EEkoa.

Hauek izan dira lehendakari guztiak: II. Errepublika eta Francoren diktaduraren garaiko Euzko Jaurlaritzan, EAJ-ko Jose Antonio Agirre (1936-60) eta EAJ-ko Jesus Maria Leizaola, erbestean. Trantsizio garaiko Eusko Kontseilu Nagusian, PSEko Ramon Rubial (1978-79) eta EAJ-ko Carlos Garaikoetxea (1979-80). Eta Gernikako estatutuaren garaiko Eusko Jaurlaritzan: Carlos Garaikoetxea (1980-85), hil berria den EAJ-ko Jose Antonio Ardanza (1985-98), EAJ-ko Juan Jose Ibarretxe (1998-2009), PSE-EEko Patxi Lopez (2009-12) eta orain bere bidea amaitu duen EAJ-ko Iñigo Urkullu (2012-24).

Euskal Herriko Autonomia Estatutua onartu zenetik, Eusko Jaurlaritzarako hamabi hauteskunde egin dira, eta apirilaren 21ekoarekin 13. legegintzaldiari emango zaio hasiera. Aurreko hauteskundeak 1980, 1983, 1986, 1990, 1994, 1998, 2001, 2005, 2009, 2012, 2016 eta 2020an egin ziren. 2016ko hauteskunde kanpainako berritasunetako bat izan zen honako legezko-agindua, ordutik aurrera betebeharrekoa: EITB-k debate bat gutxienez eskaintzea, euskarazko eta gaztele-rako elkarrizketa batekin batera, azken legegintzaldian ordezkariak dituzten hautagaiekin.

Hautesle errollari dagokionez, Bizkaian 945.874 lagun dira botoa eman dezaketenak (eureta-ko 43.706 atzerrian), Gipuzkoan



Mahaia on line eta Instagram bidez erreserbatu dezakezu.

@ongietorri_janetaedan



Toribio Etxebarria, 21
943 20 70 07
www.ongietorribar.com



Miren Gallastegi, Eneko Andueza eta Eva Juez legebiltzarkide izan dira orain arte.

elecciones
A21
2024
hauteskundeak



587.709 (atzerrian 30.647) eta Araban 261.623 (atzerrian 8.529). Guztira, beraz, 1.795.206 boto-emaile daude.

Horrela, arabar baten botoak bizkaitar batenak baino 3,6 aldiz gehiago balio du: Bizkaiian legebiltzarkide bakoitza 37.834 boto-emaleen ordezkari den bitartean, gipuzkoar baten eserlekua 23.508 boto-emaleei dagokie, eta arabar batena 10.464 boto-emaleei. Hori dela-eta lortu zituen bost eserleku Unidad Alavesak 1994an, bakarrik 27.797 botorekin; hauteskunde horietan, kontrara, Ezker Batua 93.291 boto eskuratuta, sei legebiltzarkiderek geratu zen. Horrelako zeozer gertatu zen baita 1986ko hauteskundeetan ere, EAJ-ren banaketa eman zenean: ordukoan jeltzaleek PSE-EEK baino 20.000 boto gehiago jaso bazuten ere, 17 legebiltzarkiderek geratu zire, sozialistak 19 lortzen zituzten bitartean. Oraingoan ere gerta dai-

teke, ikusita azken inkestek diotena, EH Bilduk boto gutxiagorekin aurrea hartu diezaiokeela EAJ-PNVri eserleku kopuruan.

Eibartarra lehendakari

Lehenengo aldiz izango du gure herriak lehendakari, Eneko Andueza PSE-EEren hautagai-tzaren buru izango delako hauteskunde hauetan. Hautagai-zerrendei erreparatuz, bestalde, Araban eta Gipuzkoan 11 aurkeztuko dira (bakoitzean sei gizonezko eta bost emakumezko buru direla) eta Bizkaiian 13 (hor sei gizonezko eta zazpi emakumezko lehen postuetan).

Bestela ere, nahiko ondo ordezkaturata egon da gure herria azken Legebiltzarrean, jakinda 75 kideetik hiru eibartarrak izan direla: Eneko Andueza bera eta, Iñaki Arriola kontseilari izatera pasatu zenean, bere ordezkari izan zen Miren Gallastegi sozialisten lerroetan; eta Eva Juez jeltzaleen ordezkari bezala.

Hauteskunde ale berezia hilaren 22an

Bezperan egingo diren Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeak

Eibarko emaitzak eta nondik-norakoak auzoz-auzoko datu eta grafikoetan azalduko dizkizuegu. Betikoari jarraituz, astelehen horretan, goiz-goizetik, ale berezi hori izango duzue eskura ohiko leku eta establezimenduetan.

eta kitto!
euskara elkartea

Azken etapak eta Challengeak Itzulia alaitu zuten

"Zapore arraroarekin" amaitu dute Itzulia Basque Countryren OCETAko antolatzaileek joan zen asteko lasterketaren eboluzioa. Horrela definitzen du, behintzat, euren sentsazioa Julian Eraso taldeko presidenteak. "Nahita ere, ezin da horrelakorik asmatu", dio egueneko laugarren etapari erreferentzia eginenez. "Horrelakorik igual beste inoiz ez da gertatuko: hamartxirindulari jausi, eta tartean justu onenak inplikaturatuz itzatea", eibartarraren esanetan. Hala ere, pozik dago unean bertan hartutako erabakiek. Ez hori bakarrik, "bai taldeetako zuzendariak, zein UCiko ordezkariak, guztiak egokitzen jo baitzituzten hartu genituen erabakiak".

Aramaion, Oletan behera izandako erorketan Primoz Roglic liderra eta bere atzetik zeuden Remco Evenepoel, Jonas Vingegaard eta Jay Vine erori ziren, besteak beste. Horrek etapa neutralizatzerako behartu zituen antolatzaileak: "Etapetan bost anbulantzia izaten ditugu, eurretako bat helmugan kokatuta. Beste hirurak txirindulariek joan ziren ospitalera, eta laugarrena, Untzilla gainean geratu zena, jaitsi behar izan genuen". Erabakia ez zen erraz hartzekoa eta "Sa-



Ineos taldeko Carlos Rodriguezek aurrea hartu zion Juan Ayusori esprintean.

lomonena egitea" tokatu zitzaion OCETAkoei. Lasterketa berriro abiarazi eta, azkenean, ihesean ziren sei txirindulariak bakarrik lehiatu ziren Legutioko helmugan, "etaparen amaiera itxaroten zeudenei zor genien errespetuarengatik".

Zorte txar horren mendekua bizi izan zuten, baina, txirindularitza


zaletuek gure herrian hasi eta amaitu zen zapatuko lasterketan. Beste behin, ikuskizun paregabea eskaini zuten erorikoen ondoren sortutako hautagai berriek eta, talde lan bikaina baliatu zuten UAEko Juan Ayusok ordura arte lider zen Mattias Skjelmoseki maillot horia kentzeko. Ayusok lagun paregabea aurkitu zuen T. Etxebarria kalean lehenengoa izan zen Carlos Rodriguezen. Horrela, belaunaldi berri batek hartu dezake ilustreenen lekukoa.

500 lagun Challengean

Hurrengo egunean, domekan, Challengearen bigarren edizioa jokatu zen. Parte-hartzeari begira, ezin arrakastatsua izan zen, "iazko kopurua hirukoiztuz. Klasikoa bihurtzeko martxa hartu du, baina baditu bere zailtasunak", Erasoren hitzetan. "Gurea ezin dugu Quebrantahuesos bat bihurtu eta, jakina, zaila da, aldi berean, guztiak ordu laurden batean helmugaratzea". Dena dela, pozik daude eguna zelan joan zen ikusita, "eguraldia ere iragarrita zegoena baino hobea irten zelako". Maiatzaren 10etik 12ra jokatu den emakumezkoen Itzulia izango dute hurrengo erronka OCETAkoek.



Rodriguez, Ayuso gorenean, eta Skjelmosek osatu zuten podiuma.



Domekako Challengean zikloturista askok hartu zuten parte.



Ezkurdia-Artola buruz-burukoa Astelenan domekan

Katedralak pilotaren buruz-buruko txapelketa nagusiko final-laurdenetako lehenengo jardunaldiko norgehiagoka bat hartuko du etzi, jaialdiko partidu nagusian. Bertan Aspeko Joseba Ezkurdiak eta Baikoko Iñaki Artolak neurtuko dituzte indarrak: eguaztenean aukeratu zituzten pilotak Astelenan. Domekako jaialdia beste buruz-buruko batekin hasiko da, promoziokoa hori, Egiguren V eta Eskiroz tartean. Amaitzeko, binaka, Elezkanon-Bikuña eta Pello Etxeberría-Gabirondo ariko dira, nor baino nor.

Ipuruako gimnasten bi talde nagusiak urrezko bihurtu ziren Euskal Ligan

Bai senior taldea, baita oinarri jubenil mailakoa ere, biak podiumaren gorenera iritsi ziren aurreko asteburuan jokaturako Euskal Ligan. Nahia Arguiz, Indira del Pino, Naroa Alonso, Haizeder Arguiz eta Maialen Apraizek osatutako boskoteak lehenengo postua eskuratu zuen estreinatu zuen lan berriarekin eta, horri esker, Espainiako Koparako txartela ere bereganatu zuen. Oinarri jubenil mailako taldeak ere Euskal Ligako txapela jantzi zuen, modu horretan June Araujo, Emile Zamakola, Elene Ramirez, Nahia San Martin eta Elene Lazpi-

tak osatutako boskotea Espainiako Koparako sailkatuz. Aipaturako bi lehiaketa horiek Santanderren jokatu dira, maiatzaren 16tik 19ra. Bestalde, Euskal Ligaren bigarren faseko bakarkako lanei degokienez, Nahia Arguizek hirugarren postuan amaitu zuen.

Asteburu honetan Ipuruako bi talde horiek Nafarroara joko dute, bertan Ansoain Torneoan parte hartzeko. Eta hurrengoan, hilaren 20an eta 21ean, eskola mailako alebin eta infantilen txanda izango da, Donostian izango den Gipuzkoako txapelketarako bigarren sailkapen



Etzi kadeteen mailako Beltran Sari Nagusia jokatu da gurean



Eibarko Txirrindulari Elkarte Sariaren zazpigarren edizioa izango da jokoan etzi goizean, Beltran Sari Nagusia izenarekin, gure herriko txirrindulari elkartearen egutegiko bigarren proba, hain zuzen. Kadeteen mailako lasterketa hori Untzagan hasiko da 10:15ean eta, azken urteetan bezala, Urkizuko parkean amaituko da, Zubi-Gain tabernaren aurrean, 12:00 bueltan.

Lasterketak 68 kilometro izango ditu eta tropelak Maltzagarako bidea hartuko du, ondoren Eskoriaztaraino jotzeko. Handik bueltan, Oñatiko Zubillaga auzotik San Prudentzio hartuko dute, zuzenean Urkizun kokaturako helmugaren bila. Antolatzaileek babesleen laguntza eskertu dute, "Beltran Igoailuak, Casa Galicia As Burgas, TAES eta Eibarko Udalarena, bereziki".



Urbat waterpolo taldeak lidergoa lortu du

Aurreko asteburuan izandako porrotetik guztiz errekuperatu zela erakutsi zuen aurreko zapatuan Urbat Urkotronikeko lehen taldeak eta, aurtan bere etxe bihurtu den Donostiako Paco Yoldi igerilekuan, Sevillako Dos Hermanas taldea gainditu zuen (17-14) eta, bide batez, baita lidergora iritsi ere, Malaga ordura arteko liderrak Chiclanan izandako porrotaz baliatuz. Aldi berean, eta hiru jardunaldiren faltan, hurren-

go denboraldian maila nazionalen jarraituko dutela ziurtatu zuten Davide Cerchiren mutilek.

Urbateko senior mailako beste bi taldeei dagokienez, gizonen bigarren taldeak gol bakarrarengatik galdu zuen azken unean Waterpolo Navarra B-ren aurkako partidua, irabazita zutela zirudienean. Emakumezkoen Urbiak, bestalde, 15-13 irabazi zion Leioa B taldeari, nor-gehiagoka serio batean.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Sevilla (bihar, 14:00)

Gizonen 2. Maila

Andorra - EIBAR (etzi, 16:15)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Osasuna C - EIBAR B

Gizonen 3. Maila RFEF

Portugalete - VITORIA

Emakumezkoen Euskal Liga

Aranbizkarra - EIBAR C

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Hernani

Erregionaleko Gorengo Maila

Anaitasuna B - URKI

Erregionaleko 1. Maila

Hernani B - EIBARTARRAK

FOBAL-LAZLETUA

• Xania Taberna - GastroGilda (bihar, 09:00)

• Malape Taberna - BOJ (bihar, 10:30)

• Baserri - Bar Marem (etzi, 09:00)

• Adahi Eraieder - L. Rueda (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Laskorain

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

BM Loyola - MEK EIBAR (bihar, 19:00)

Gizonen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Egja (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Zuazo Senior (etzi, 11:30)

SASKIBALOIA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Añorga Saski - EIBAR (bihar, 18:00)

Gizonen Gipuzkoako 2. Maila

ART. JUANTXO - Zast Zarautz (bihar, 14:30)

Gizonen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR B - arri BKL (bihar, 16:20)

Gizonen Gipuzkoako 3. Maila

CD Internacional - EIBAR C (etzi, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonen 2. Maila Nazionala

Colegio Brains - URBAT (bihar, 16:00)

Gizonen Euskal Herriko Liga

Getxo IBKE - URBAT B (bihar, 15:00)

Emakumezkoen Euskal Herriko Liga

Urbiak - ADW Santaña (bihar, 20:00)

PILOTA

Astelena (etzi, 17:00)

Egiguren V vs Eskiroz

Ezkurdia vs Artola

Ellezkano-Bikuña vs Peio Etxeb.-Gabirondo

GIMNASIA ERITMIKOA

Ansoain Torneoa (Nafarroa)

IPURUAko Senior eta Oinarrri Jubenilak

Asola Berriko Enara Montiel nagusitu zen Elgetako hiru-txirloko tiraldian

Aurreko zapatuan Elgetako bolatokian jokatuak 53. Gipuzkoako Hiru Txirlo bola joko txapelketako hirugarren jardunaldian eibartarra izan zen onena, zazpi txirlo botata. Berarekin berdindu zuen Elgeta bertako Jabi Martinok, eta txirlo bakarrera geratu zen laukote bat: Elgetako Bittor Astigarraga, Aretxabaletako Isana Gorosabel, Bergarako Mikel Almorza eta Asola Berriko Julen Uranga.

Txapelketako laugarren tiraldia Aretxabaletako bolatokian jokatu da bihar arratsaldean, betiko lez, 17:00etatik aurrera.





Altxorraren Bila antolatuko du familientzat ...eta kitto!-k maiatzean

Aurreko urteotako ohiturari jarraituz, aurten ere Familien arteko Altxorraren Bila jolasa antolatuko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak.

Lehen Hezkuntza osoko ikasleentzat eta haien familientzat antolatutako ekintza, aurten, maiatzaren 10ean egingo da, barixakua. Tal-

deka eman beharko da izena eta taldeak, asko jota, hamarrekoak izango dira. Taldekideak familia berekoak edo kuadrillakoak edo lagunak izan daitezke, baina talde bakoitzean 2-4 heldu egon beharko dira, ume kopuruaren arabera. "Untzagan hasiko da jolasa, 17:15ean, bertan jasoko dute taldeek lehenengo pista eta, hortik aurrera, asmatzen joan ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran sariak egongo dira parte-hartzaile guztientzat. Oso proba dibertigarriak izango dira, familian edo lagun artean ondo pasatzeko modukoak", diote ...eta kitto!-tik.

Izen-ematea gaur zabaldu eta apirilaren 30era arte luzatuko da. Horretarako, www.etakitto.eus webgunean dagoen inprimakia bete, 943200918 telefonora deitu edo elkarteko bulegotik pasa daiteke (Urkizu 11 solairuartea). Plaza mugatuak direnez, izena ematen duten lehenengo zortzi taldeek hartuko dute parte ekintzan.

Magia-ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Imanol Ituiño magoa ekarriko du Eibarrera ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Illunabarrian programaren barruan antolatuko duen magia-ikastaroa gidatzeko. Apirilaren 25ean, eguena, egingo da ikastaroa, euskara elkartearen egoitzan 19:00etatik 20:30era. 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute eta izen-ematea zabalik dago. www.etakitto.eus webgunean dagoen inprimakia bete daiteke, banaketa.etakitto@gmail.com helbidera mezua bidali edo elkarteko egoitzatik pasa. Izen-emateak 5 euro balio du, 4 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat. Ituiño mago profesionala da, hainbat sari irabazi ditu eta Gure Zirkuko magoa da gaur egun.





Euskararen sozializazioa eta transmisioa

XIV. MINTEGIA

Maiatzaren 8an

SD EIBAR KE-aren
prentsa aretoan

08:45: Materiala jaso

08:55: Ongietorria eta agurra

09:10: **Hizkuntzaren funanbulistak. Adin, genero eta hizkuntzaren arteko orekak eta desorekak**

Jaime Altuna, EHUko irakasle eta ikerlaria.

10:15: **"Gazteen online kontsumoak"**

Garazi Sánchez, EHUko NOR ikerketa taldeko ikerlaria.

11:00: **"Euskararen geografia berria"**

Garikoitz Goikoetxea, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko buru eta ikerlaria.

11:45: ATSEDENALDIA

12:20: Begirada bat Nafarroara

12:25: **"Agerraldia, euskara plazara"**

Ibai Sueskun, Errigora eta Agerraldiko kidea.

13:00: **"Aisialdia eta euskara, hori gara gu"**

Esther Lakasta Perez- Itzarbe, Dindaia Fundazioko teknikaria.

BAZKARIA (aukeran): IPUR SAGARDOTEGIAN

www.etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

antolatzailea

 **eta kitto!**
euskara elkarte

laguntzaileak



kolaboratzailea



“Birakari agur esatean, eskerrak eman nahi dizkiot Eibarri jaso dudanagatik”

JOSU MUJIKA • Dantzaria



Josu Mujika elgoibartarrak bi hamarkadatik gora eman ditu Eibarren dantza irakasten. Penarekin agurtuko du ibilbide hori, bere asmoa Birakak bera barik ere jarraitzea zelako; baina, ahaleginduta ere, ez du asmo hori lortu eta agur esateko ordua iritsi zaio. Eskaini digun elkarrizketan argi erakutsi digu inolako protagonismorik ez duela nahi, eta behin eta berriro aipatu digu pozik doala egindakoarekin.

Hasteko ere ez zuen bide errazik aurkitu Mujikak. Hemen aukerarik apenas eta Belgikara jo behar izan zuen, han Maurice Béjarten Mudra eskolan ikasteko. Bertako konpainia batekin Italiara joan zen gero, han ere urte batzuk egiteko. Saririk jasotakoa ere bada bertan, orain dela urte batzuk Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteko presidentea izan aurretik.

Biraka dantza-eskolaren agurra iragarri diguzu. Zer dela-eta?

Batetik, adina dago, erretiroa hartzea ere tokatzen zaidalako. Bestetik, ez daukat jarraitzailerik; proposatu izan diet ikasle batzuei, gai zirela eta aurrera eraman-gozutela espero nuelako, baina azken unean beldurtu

eta atzera egin dute. Pena handia ematen dit, asko jaso dudalako Eibartik. Baina, nahiz eta forman egon, adina igartzen da. Sasoi batean 4-5 eskola izan nituen Deba bailaran, atzera begira ez dakit zelan egiten nuen, baina bete egiten ninduen. Niretzat ez delako lana izan, pasioa baizik. Ikasle batzuk akabatu egingo naute, baina erabakiak hartu behar dira.

Zezer bereziarekin agurtzeko asmoa duzu?

Ikasturte amaierako jaialdi batekin izango da; hor laburpen antzekoa eskaintzeko gogoia dut, proiektzio baten bueltan. Ez dudalako protagonista izatea nahi; lana egingo dut, baina protagonistak ikasleak dira. Ez naiz agurtzera ere irteten. Gogoratu nahiko nituzke egin ditugun hainbat gauza, minutu batzuetakoak, guztia ezin delako sartu. Coliseoko jaialdian izango da.





Kalean zein antzokian, eszenategi guztiei jakin izan die Mujikak zukua ateratzen.

Zenbat urtetako ibilbidea izan da?

2000.ean hasi nintzen Deban, gero Mendaron eman zidaten aukera, Elgoibarren ere hasi nintzen... Baina beti gustatu izan zait herri desberdinetako jendea nahastea, mestizajearen oso aldekoa naiz: ibilbide hori emankorra izan delakoan nago, euren artean pike sanoa piztu eta, modu ezinhobean, adiskide bihurtu direlako azkenean. Eibarren 2002an hasi ginen, Institutuan: urte eta erdiko kontua izan zen, beheko gimnasioan, oso ikasle gutxi baina finekin... Bada oraindik jarraitzen duenik! Eta izan dira karrera amaituta, edota umea eduki ondoren, bueltatu direnak.

Zeintzuk izan dira unerik aipagarrienak?

Musikalak. Bergaran egin zuten Olentzero & Company gogoan dut. Gero Eibarren eskaini genuena, eta Bilbon, Iruñean eta Donostian aurkeztu genuena. Formatu ezberdinekoa zen: musika zuzenean, oso abeslari onekin, bandako profesionalak ia denak. Bikaina izan zen baita Untzagan eskaini genuena ere, "Poxpolo" Kultura teknikariak bultzatuta zuzendu nuena, ederra benetan. Bertako dantzariak Vodafoneko iragarki bat ere egin zuten. Eta ez dut ahaztu behar Eibar, Elgoibar eta Debako dantzariak nahastuz egin genuen zinema musikala, exigentea izan zena aldi berean; bertan parte hartu zutenak askotan gogoratzen didate eurentzat Birakaren onena izan zela zinema abentura hori.

"Bada umetan etorri eta, ikastera joan eta ama izan ondoren, berriro gurera bueltatu denik"

Zenbat dantzari pasatu dira bertatik?

Jakinda urte batzuetan 300 lagunetik gora izan ditugula... 1.500, 2.000 inguru... batek daki.

Zein adinetik hasita? Zenbat urtera arte? Zenbat urte eman dute zurekin?

4 urterekin komeni da hasia. 3 urtekoekin ere hasi ginen, baina adin horretan oso dependiente dira oraindik. 4 urterekin, ordea, jaialdia zer den ez dakiten arren, behin eginda berehala ulertzen dute. Gehiago oraindik, droga antzekoa bihurtzen zaie lehenengo esperientziatik. Goitik jotzen badugu, 60koak ere izan ditugu. Bada nirekin 40 urte egin eta jarraitzen duenik, ezkondu eta gero bueltatu direnak.

Emakumeak izango dira nagusi, ezta? Hor badago eboluziorik?

Ez, ez dago aldaketarik. Zortzi-bederatzi mutil izango genituen, oso onak gainera. Euskal dantzetan gehiago izaten dira, baina badago atzera botatzen dien zeozer hor.

"Musikalaren aldekoa naiz, dantzatzeaz aparte aktuatu ere egin behar delako"

Eibarkotik aparte, nongoekin egin duzu lan Birakan?
Bergaratik eta Ermutik etorri izan dira, baita Eloorrietik eta Soralezetik ere. Gehienak, dena dela, eibartarrak izan dira.

Zelako dantzak eskaini dituzue?

Metodo aldetik, teknika lantzen dugu, horrek ematen duelako gorputza hobeto erabiltzeko aukera. Teknika klasikoa irakatsi dugu, jazza ere bai, ez oso modu akademikoan, baina hiztegia ezagutuz, denetarik dantzatzen, klasikoan ere bai, baina nahastuta beti.

Zein ikuskizun mota dituzu gustokoen?

Musikala gustatzen zait, batez ere. Dantzatzeaz aparte, hor aktuatu ere egin behar duzulako, abestu, modu batean historia bat kontatu. Dantzas konpainiarekin ere jardun izan dut, beti ere bizipenak eta sentimenduak adieraziz. Jendearentzat ere erakargarriagoa da musikala.


Zer ahalegindu zara eskaintzen urteotako ikuskinunetan?

Dibertsioa gustatzen zait, jendeak ondo pasatzea, baina baita maila erakustea ere. Urteetik urtera erakustea gure mugimenduetan hobetu dugula, mailan gora egin dugula. Ia urtero esaten didate: Amaitu da? Jendea gehiago ikusteko gogoaz geratzen delako. Gainera, hasierako urteetan dantza baten ondoren agurtzen bagenuen, azken urteotan dena jarraian eskaintzen dugu, emanaldi bakarra balitz bezala. Azkenean agurtu eta nahiko.

Zein eszenategiren alde egiten duzu? Nahiago kallean edo antzoki batean?

Antzokiak aukera teknikoak eskaintzen ditu: argia, soinua... Eta horretan Coliseoa txapelduna da, ekipamendu ona izateaz gain, material zein pertsonal arloetan profesionalak direlako, plazerra da horra joatea. Kaleak, bestalde, badu bere xarma, antzokira joateko ohiturarik ez duena bertan izan ahal delako. Formatu ezberdina da, jakina, baina guztatzen zait jaleoa muntatzea, pijamak jantzi eta halakoekin. Gogoratzen dut oso ondo irten zen Aleluia bat, hiru herritako jendearekin osatu genuen lana.

Kurtso-amaierako aktuzioei zelako garrantzia eman izan diezu?





Musikalak dira gustokoan dituen ikuskizunak, baina denetarik probatzearen aldekoa da Elgoibarko dantzari eta koreografoa.

Asko, gurasoen aurrean agertzen duzulako zure lanaren emaitza. Ikasleentzat eurentzat ere ikasteko modua da, diziplina zelan agertu behar duten. Konturatzen zara eszenategian egoten zelan ikasi duten: gortinak ikutu barik dihardute, badakite ilunetan ere noiz sartu behar diren...

Zer lortu nahi izan duzu? Zer eman dizute ikasleek? Jendea formatu nahi nuen, nahiz eta ez profesionalki jarraitzeko. Ikusten duzu 6-7 urteko umeak zelan eboluzionatu duen, gaur egun zelan egin dezakedan lan berarekin. Helduekin, bestalde, ikusten duzu orain zein azkar eta erraz egiten duzun lan, elkar ulertzen dugulako ia hitzik gabe, dantza erakargarriak egiteko orduan. Zer eman didaten? Energia asko, batez ere txikiek. Erakustea lana da, baina motibazioak dena errazten du: nirekin ikasi behar dute, dibertitzea nire habilitadeara izan behar da eta, aldi berean, seriotasuna ere nahi dut. Ederra da hori.

Arlo pertsonalera pasatuz, koreografo, dantzari, dantza-irakasle eta aktore. Non erosoago?

Bizitzaren garaia araberak. Dantzak asko eman dit, koreografiak muntatzen oso eroso ibili naiz. Aktore izatearena pixka bat lagata dut azken aldiak. Dene-tan jardun dut gustora.

Belgikan eta Italian ikasitakoa zara. Beharrezkoan kanpora joatea dantzarekin aurrera egiteko?

Hemen ez zegoen ezer. Ballet Nacional de España sortu zuen Victor Ullaterekin Belgikan egon nintze-nean, hemen zeozer ganorazkoa antolatzea zein zaila zen aitortu zidan. Politikariek ez zuten horrelako bisiorik. Abentura hutsa zen! Orain Gasteizen bertan dago Gradu Ertaineko Kontserbatorioa.

“Erakustea lana da, baina motibazioak dena errazten du; emaitza ederra da eta merezi du”

Dantzan zer aldatu da hasi zinenetik?

Teknikazio handiagoa dago. Errenteriako Dantzas konpainian bertan kanpotik etorritako maila handiko jendea dago, txikitatik kontserbatorioan sartutakoak, araututako formakuntza jaso dutenak. Igual indarra falta zaie, ez dakit, pasioa behar duzulako.

Zer iritzi duzu beste arlo artistikoekin izan deza-keen mestizajeaz?

Oso gustoko dut. Pintura izan, zinea, proiektzioak atzealdean... Dantza espresio mota bat da eta, horregatik, beste edozein motarekin nahasteko prest izango nauzu beti. Hori bai, kopiatzea ez zait gustatzen, berritzearen alde joko nuke.

Hemendik aurrera, zer?

Lasaitasun pixka bat, espero! Gauza asko egin ditut, gustora gainera, baina badira ez ditudan egin ere. Pintura gustatzen zait, antzerkia ere bai... Bakarka-ko emanaldi bat egitea gustatuko litzaidake, ez dakit indarrak izango dudana.

Baduzu zeozer jendeari esateko?

Eskerrak eman nahi nizkieke, zurikeriarik gabe. Eibarrera etortzeak asko eman dit. Udalaren jarrera ezinhobeia izan da, Coliseoa luxua. Fenomeno gaude hemen, bihotzez.



Esteban Oroz da Artisten Elkarteko presidente berria

Esteban Oroz margolaria izango da Eibarko Artisten Elkarteko presidente berria aurrerantzean, azken urteotan karguan egon den Jose Agustin Larrañagari erreleboa hartu eta gero. Umetatik Eibarren bizi den margolaria Etxaurin (Nafarroa) jaio zen, eta aski ezaguna da, batez ere aire libreko margo lehiaketetan izan duen ibilbide oparoagatik.

Datozen hilabeteetan abian jarri nahi dituen ekintzen artean, aurreko barixakuaz geroztik Portalean dagoen erakusketa kolektiborako bisita gidatuen programa nabarmentzen da. Lehen bisita atzo egin zen, eta domekan izango da bigarrena, 19:00etatik 20:00etara. Eibarko Artisten Elkarteko kideen lanak biltzen dituen erakusketa apirilaren 28ra arte egongo da zabalik, eta bertan herriko 37 artistaren era askotako lanak ikus daitezke (marrazketa, pintura, grabatua, eskultura, zurezko tailaketa, zeramika, argazkia, damaskinatua...). Presidente izendatu berriak hitzaldiak ere antolatuko ditu, arte-adituekin, pintore klasikoekin eta modernoekin ibilbide artistikoa ezagutu nahi dutenentzat. Gainera, irteerak eta tailer artistikoak antolatzeko asmoa ere badauka, eta akuarelari buruzkoa Artisten Elkarteko kidea den Santi Entrenak zuzenduko du.

Jirabira jolasa liburutegian



Udal Liburutegiak antolatuta, Jirabira irakurketa sustatzeko jolasaren 3. edizioa hasiko da astelehenean. Parte hartzeko Liburutegiko bazkide izan behar da (LHko 2. mailatik aurrera). Ekainaren 14an amaituko da jolasa eta parte hartzen duten guztientzat detailtxo bat egongo da.



Gaurko zine-foruma Armeria Eskolan izango da, 18:00etan

Céline Sciamma zuzendariaren *Retrato de una mujer en llamas* filmari buruzko zine-forum feminista saioa egingo da gaur arratsaldean, 18:00etan, Armeria Eskolako areto nagusian, Pagatxa emakume elkarteak Berdintasun Zerbitzua-Andretxearekin elkarlanean antolatuta. Izaskun Rodriguez Elkorok dinamizatuko du eta sarrera libre izango da. Eta astelehenean, berri, *Emakumeen Istoriak* bideo-forum emanaldian, Bilboko emakumeak izango dira protagonista. Patricia Perex Cotok dinamizatuko duen saioa Andretxean egingo da, 18:00etatik 19:30era. Jarduera honetarako sarrera ere dohainik eta libre izango da.



LGTBIQ+fobiarekin amaitu nahi duen erakusketa

Eguenean, 18:00etan aurkeztuko dute Andretxean *LGTBIQ+fobia gorroto delitu eta diskurtsoak* erakusketa. Apirilaren 19tik maiatzaren 8ra bitartean ikusi ahal izango den erakusketa Aldarte elkarteak prestatu du, LGTBIQ+fobia, diskriminazio eta gorroto-delituak ikusgarri egiteko asmoz.



Dantzaz Konpainiaren “Distirak” apirilaren 20an

Dantzaz Konpainiaren eskutik, *Distirak* dantza garaikide ikuskizuna ikusi ahalko da apirilaren 20an (zapatua), 20:00etan Coliseon. Dantza zuzendarien berbetan, “hiru koreografiak, bakoitzak bere ikuspegi eta pasioarekin, dantzatik haratago doan ikuskizun baten bidez gidatuko gaituzte; gorputzaren mugimenduaren bidez ehuntzen diren istorioen aberastasuna ezagutzera gonbidatzen gaituen esperientzia sensorial bat da”. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin) eta alde zuzenetik erosi daitezke, Coliseoko leihatilan (astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era) edo, bestela, Kutxabanken bidez.



Ikasturte osoko lanaren emaitza Portalean ikusgai

Gaur arratsaldean inauguratuko dute *Lanaren Fruitua* izenburuko erakusketa, Portalean. Eibar BHko ikasleek (DBHko 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara artekoek) kurtsu honetan egin dituzten eskulanak, ikus-entzunezkoak, plastika-lanak, artisautza, marrazki teknikoak zein artistikoak, teknika grafiko-plastikoe-kin sortutakoak eta pintura irakasgaietan egindako lanak ikusi ahalko dira. 28ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.



Alboko Esklerosi Amiotrofikoa dutenei laguntzeko antzekizuna

Domekan, 12:30ean, Eibarko La Red Teatrok *Los Olivos Pálidos* taularatuko du Coliseon. Ikuskizunak helburu solidarioa izango du, lortzen den dirua Gipuzkoan Alboko Esklerosi Amiotrofikoa (AEA, gaztele-razko ELA) gaixotasuna daukatenei laguntzeko izango baita. Eibarko Udalaren eta ADELA-Gipuzkoa elkar-terean laguntzarekin antolatuta duten saiorako sarrerak 10 euro balioko du, dohaintza gisa. Gainera, antzezki-zunera joan barik ere erosi daitezke sarrera (0 lerroa), 01378 zenbakira Bizum eginda. Sarrerak egunean bertan eskuratu daitezke, eta baita alde zuzenetik ere, Eibarko Klub Deportiboan edo ADELA-Gipuzkoako 679234059 telefonora deituta. Mikel Areitioaurtenak zuzenduta, eszenatokian Maite Lorenzo, Juanma Cano, Nerea Ariznabarreta eta Enrique *El Vaca* gitarra-jole flamenkoa arituko dira. Argiztapena, berriz, Juanjo Perezena da. Umorea, drama, antzerkia, poesia eta zuzeneko musika uztartzen ditu lan honek.

Zientziari buruzko bakarrizketak



Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, martitzenean *Barredromoaren* edizio berria hartuko du Markeskuak, 18:00etatik aurrera.

Idoia Torregarai UEUko Komunikazio-arduradunak dinamizatuko duen saioan Marina Landa Gonzalez, Josu Lopez-Gazpio, Onintze Parra Ipiña, Ander Prieto de Garay eta Eider Saraguetza Garrido arituko dira. Sarrera doakoa izango da, baina bertaratzeko komunikazioa@ueu.eus helbidera idatzi beharko da.

Aitor Ibargutxi San Pedro

2024/04/03

GURE ESKERRIK
ZINTZOENA
bere hileta-ekimenetan
gurekin bat egin
duzuen guztioi.

- BERE FAMILIA OSOA -



Anton Ormaechea Solozabal

2024/04/08

"Zuretzat, Anton:
beti laguntzeko prest,
pertsona ezinhobea,
bidai lagun ona...
Eskerrik asko, bihotzez,
eman diguzun guztiagatik"



Eibarko Txirrindulari Elkarteak
ZURE LAGUNAK



Miren Begoñe Maiora Gonzalez de Audikana

4. URTEURRENA
2020/04/13

"Zure alaitasuna
eta maitasuna gure
gogoan daude"

- ZURE FAMELIXA -



Fernando Valenciano Yebra

4. URTEURRENA
2020/04/08

"Zu joan zinen, baina
GURE BIHOTZETAN
BIZIRIK ZAUDE"

- ETXEKOAK -



Juan Anchia Emparanza

5. URTEURRENA
2019/04/14

"Beti
eramango
zaitugu
bihotzean"

- ETXEKOAK -



Aitor Ibargutxi San Pedro

2024/04/03

ESKERRAK
IZAN ZARENAGATIK.
Garaipen egunera arte.



Eibarko Sortu



zarelakogara



- ✓ Eibarren euskararen erabilera bultzatzeko
- ✓ Komunitate euskaltzalea sendotzeko
- ✓ Euskara behar dugulako...

...elkarrekin bidea errazagoa delako

Egin zaitez bazkide!

			9			
7		5	1	6		9
	9	8				4
		1	3		7	
	3	6			9	5
	1	6	9			
1					2	4
	7	2	4	8		6
			6			

8			5	7	3			2
								7
				2	8	1	9	
							7	4
	2		9		4		6	
6	1							
	5	8	7	4				
7								
1			8	3	9			5

soluzioa



8	1	2	9	5	6	3	7	4
7	9	8	1	3	6	2	5	4
6	3	2	4	8	9	7	1	5
1	5	7	2	3	6	4	8	9
2	4	8	9	7	1	5	3	6
3	6	1	2	4	8	9	7	5
4	9	8	1	3	6	2	5	7
5	7	2	4	8	9	7	1	3
6	3	2	4	8	9	7	1	5

SUDOKUAK

soluzioa

8	1	2	9	5	6	3	7	4
7	9	8	1	3	6	2	5	4
6	3	2	4	8	9	7	1	5
1	5	7	2	3	6	4	8	9
2	4	8	9	7	1	5	3	6
3	6	1	2	4	8	9	7	5
4	9	8	1	3	6	2	5	7
5	7	2	4	8	9	7	1	3
6	3	2	4	8	9	7	1	5

LABIRINTOAK



7 DESBERDINTASUN



Apirilak 12/18

BARIXAKUA 12

BARIXAKUAK JOLASIAN
17:00/18:00 Jolasak 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat, euskaraz. Txaltxa-Zelai / Untzaga.

ZINE-FORUMA

18:00 "Retrato de una mujer en llamas" (Zuz: Céline Sciamma). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).



INAUGURAZIOA

19:00 "Lanaren fruitua", Eibar BHI-IES Eibarko ikasleen artelanen erakusketa. Portalea.

EKITALDI POLITIKOA

19:00 "Aldaketa da orain", EH Bilduren ekitaldi politikoa. Txaltxa-Zelai (euria egingo balu, Errebal Plazan).



ZAPATUA 13

MUSIKA

20:00 Idoia Asurmendiren kontzertua. 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



DOMEKA 14

TXIRRINDULARITZA

10:15 VII. Eibarko Txirrindulari Elkartearen Saria. Kadeteak.
12:00 Helmuga. Urkizu.

ANTZERKIA

12:30 "Los olivos pálidos" (La Red Teatro). ADELA Gipuzkoako Elkartearen alde. 10 euro. Coliseo.



ASTELEHENA 15

BIDEO-FORUMA

18:00/19:30 Emakumeen istorioak: Bilboko emakumeak. Sarrera librea. Andretxea.

MARTITZENA 16

BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 "Emakumea eta elite-kirola" gaiari buruzko tertulia. Sarrera librea. Portalea (ikastaro gela).

BARREDROMOA

18:00 Zientziari buruzko umorezko bakarrizketak, UEU-ren eskutik. Markeskua.

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: Nerea Loiolaren "Epizentroa" liburuari buruzko tertulia, Ainhoa Aldazabalek dinamizatuta. Portalea (1. Batzartokia).



EGUAZTENA 17

IBILDIA

09:09 Ibilaldia: Donostia-Loiola-Ametzagaina-Errenteria. Bazkaria eraman. Trenaren irteera-ordua, Ardantzatik (08:11ean Estaziotik).

DANTZA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepasoa, Euskal Jairako. Arrateko Andra Mari ikastetxea.



EGUENA 18

HITZALDIA

10:00/12:00 "Krisi klimatikoa", Antton Olabereren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola.

AURKEZPENA

18:00 "LGTBIQ+fobia gorroto delitu eta diskurtsoak" erakusketaren aurkezpena. Andretxea.

FRAKUSKETAK

Apirilaren 16ra arte:

- "AMA TA ASUNAK", June Baonza Pagaldaireren proiektua. (Andretxea).

Apirilaren 28ra arte:

- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA. (Portalea).
- "LANAREN FRUITUA" Eibar BHI-IES Eibarko ikasleen artelanak. (Portalea).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

12an (BARIXAKUA)
PIRRITX, PORROTX...
17:00 eta 19:00 / Antzokia

ERMUA

12an (BARIXAKUA)
ANTZERKIA
20:30 / Herriko Antzokia
"Del color de la leche"
13an (ZAPATUA)
EUSKAL JAIA
Eguerditik aurrera

DEBA

14an (DOMEKA)
LASTURKO TALO EGUNA
12:00 / Egitarau berezia

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **13an:** 22:30
- **14an:** 20:00
- **15ean:** 19:30

"Pájaros"
KOMEDIA



2024 / Espainia / 100'
Zuzendaria: Pau Durà
Aktoreak: Luis Zahera, Javier Gutierrez, Teresa Saponangelo
Road Movie / Hegaztiak

2 ARETOA

- **13an:** 22:30
- **14an:** 17:00, 20:00
- **15ean:** 19:30

"Puan"
KOMEDIA



2023 / Argentina / 111'
Zuzendaria: Benjamin Naishtat
Aktoreak: Leonardo Sbaraglia, Marcelo Subiotto, Julieta Zylb.
Ikastetxeak / Unibertsitatea

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00 (1 Aret), 19:45 (1 Ar)
- **14an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **15ean:** 19:30

"Menudas piezas"
KOMEDIA



2024 / Espainia / 99'
Zuzendaria: Nacho G. Velilla
Aktoreak: Alexandra Jimenez, Maria Adanez, Francesc Orella
Xakea / Errealitatean oinarritua

ANTZOKIA

- **13an:** 17:00, 19:45 (2 Aretoa)
- **14an:** 17:00

"La familia Benetton"
KOMEDIA



2024 / Espainia / 93'
Zuzendaria: Joaquin Mazon
Aktoreak: Leo Harlem, Juan M. Montilla, Damian Alcazar
Familian ikustekoa

IBAN ORTIZ DE VILLALBA

AZKEN AGURRA
APIRILAK 13
12:00etan
ARRATEKO ZELAIAN

FUNEUSKADI
Grupe Azokas

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Elgoibar:
Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa:
Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **ELENE** Moyua! Hillaren 16xan 5 urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, **MADDI** Arregi Sanjurjo, gure printsezak bixar urteak beteko ditu-eta. Segi holan, alai alai! Etxekuen partez.



Zorionak, **AIUR!** Atzo 5 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolo eta besarkada erraldoi bat! Manex, Lea, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **NAIA**, etxeko txikixa!! Eguaztenlan urtetxua bete zenduan-eta. Musu erraldoi bat famelixaren partez.



Zorionak, **LIBE!!** Eguaztenian 9 urte bete zenduaz-en-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Nere-ren partez.



Zorionak, **MIKEL** Garcia Murgoitio! Domekan 9 urte! Musu potoluak etxekuen partez. Eta aupa, jarraitu betiko bizipoza-rekin.



Zorionak, **MARITXU** eta **ANGEL!** Hillaren 14an 68 urte egingo dozuez-eta alkarrekin ezkondua. Patxo haundi bat famelixako danon partez!

kili_klik  kili_klik 

argazkilaritza fotografia

www.kiliklik.eus

646114443 • kilimaksortzen@gmail.com
Indalecio Ojanguren 1 behea

 **LORADENDA**

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarquak etxera

ek!

Zure publikitatea herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus



tartak

enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. LANA

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauze eta ospitalean ere) eta pegoarak garbitzeko. 679912841.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketarak egiteko. Interna. 631055859.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Interna. 631545774.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 631759107.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602335470.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612201719.
- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631537430.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko: etxean, obretan... 638421827.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtargiriarekin ere). Baita umeak zaintzeko uztailan eta abuztuan. Orduka. 636841158.

- Neska eskaintzen da garbiketarak egiteko: etxeak, tabernak, pegoarak... 688758630.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. 634651895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Externa. 677259560.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: zainketak, garbiketarak, etb. 612228607.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldean eta gauze nagusiak zaintzeko. 643464307. Virginia.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 632881068.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 614328776.
- Gizonezkoa eskaintzen da pintore bezala: pladur etb. Esperientzia. 631509262.
- Manikura eta pedikura egiten da etxean: tradizionala eta gel basikoan. 632881068.
- Geriatria-laguntzaile euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko ospitalean ere. 660511781 eta 943742330.

4.2. Langile bila

- Ermuko Aierra Estilistak ileapaintzailea behar du. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. 626524949. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Hobe esperientzia badu. 661955980.
- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun erdiz lan egiteko pertsona behar du, maiatzetik abuztura. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



ArmeriaEskola^x

ATE IREKIAK

APIRILAK 16

Asteartea, 18:00



Eman izena!

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

AUPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

NEINOR STORE: Bidebarrieta, n° 6

900 11 00 22 • neinorhomes.com

“

Politikarekiko
konfidantza
berritzeko
aukera
daukazu.

ALDAKSTA
DA ORAIN*

Bozkatu

ehbildu